

KULTURA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko liburu eta CDa kalean da

Liburua eta mp3 formatuko diskoa elkarrekin salduko dira ohiko liburudendetan edo www.lanku.com atarian, 20 euroren truke (Bertsozale Elkarteko bazkideentzat, 15 euro). 800 bat bertso hautatu dira eta finala oso-osorik aurki daiteke.

@ANE_ARRUTI | VILLABONA | 2014/05/07



Bertsolari Txapelketako liburua eta CDa Villabonako Subijanan aurkeztu dituzte. (Jon URBE/ARGAZKI PRESS)

Zortzigarren liburua da Bertsozale Elkartek gaur aurkeztu duena, 1986az geroztik –Txapelketa Nagusiaren antolaketa bere gain hartu zuenetik– edizio guztietan kaleratu baitu liburua. 2009ko txapelketan DVDa ere osatu zuten, baina Jon Agirresarobek txapelketako koordinatzaileak adierazi duenez, garaian garaiko formatu egokienaren aldeko apustua egin dute eta «bertsozaleek gehien estimatzen duten» formatua aukeratu dute, liburuaz gain, CD-a alegia. «Gaur egun interneten edonoren eskura daude bideo guztiak, baina bertsozaleek eskaera egin digute audioak nahi zituztela, kotxean nahiz etxean entzuteko».

Xenpelar dokumentazio zentroak koordinatu duen liburuak, txapelketako kronikak, argazkiak, iritziak eta bertsoak biltzen ditu. 200 bertsoaldi inguru, 800 bat bertso guztira. Txapelketan parte hartu duten bertsolari guztien bertsoen bat ageri da eta finala oso-osorik aurki daiteke. Liburuan dauden bertso guztiak daude audio formatuan.

Iritzien atalean, Mintzola Fundazioko Karlos Aizpuruak azaldu du inoiz baino gehiago direla aurrean, hamalau, eta esparru ezberdineko ekarpenak direla. Jone Miren Hernandez, Xabier Paia, EHUko IXA Taldea, Teresa Del Valle, Jexux Larrañaga, Anais Falco eta Christian Simelio, Pere Bescos, Olatz Mitxelena, Xabier Sukia, Gorka Azkarate, Joxerra Garzia, Arkaitz Goikoetxea eta Andoni Egaña dira analisi hauek sinatzen dituztenak.

Liburuko argazkiak Gari Garaialdek eta Alberto Elosegik egin dituzte eta Felix Irazustabarrenak egin du bertso hautaketa eta hauen fitxa eta girotze sarrera.

Eranskinen atalean, Joanito Dorronsorok eta Martin Aramendik txapelketan erabilitako doinuak aztertu dituzte. Sei izan dira azken edizio honetan erabilitako doinu berriak –pentagrama eta guzti datoz liburuan–, eta hiru neurri berriak.